

Duela 45 urte, 1976ko uztailaren 21ean, Alkateen Mugimenduak deituta, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroaren izenean, 70 Udal batzartu ziren udaletxe honetan eta Bergarako kaleak leporaino bete ziren milaka euskaldunekin. Foruen 1876ko deuseztapena, 1839koaren ondorengo, oroitzen zen egun hartan. Foruak indargabetu zituzten legeak, gerren eta indarrezko ekintzen ondorioa besterik ez, azken finean.

Ordu hartan Bergaran izan ziren alkateek eta zinegotziek aitortu zuten ez zitzaiela samurra gertatu herriaren nahia eta erabakia ulertu eta argitara ematean beren gain hartu zuten erantzukizuna betetzea; hala ere, haiek uste zuten heldu zela garaia argi eta garbi adierazteko herriaren eskubide politikoak iraungiezinak eta ukaezinak direla. Auziaren benetako funtsa ez baitzegoen foraltasun zaharrear, eskubide historiko horiek eguneratzean baizik, foruek adierazten zituzten subiranotasun-eremuak euskal nazio ikuspegitik gaur egunera eta etorkizunera proiektatzean, alegia.

Orain 45 urte “jende arruntaren kezken arabera ezartzen ziren lehentasunak, izan ere herritar soila bazen nor, bazenez, eta beraren irizpidez idatzi dira geure izatearekin bat datozen erakunde demokratikoak hezurmamitzeko bidea ireki duten legeak, amnistia, integrazioa, euskara hizkuntza ofizialtzat aitortzea, Nafarroa, Lizarrakoaren antzeko Autonomia Estatutua, hau abiapuntutzat hartuz foruak erabat itzuli arte”.

45 urte ondoren, 2021eko uztailaren 21 honetan, gure herria beste bidegurutze batean dago eta Euskal Herri osoko udal ordezkariak bildu gara Bergaran, munduari herri bat garela eta herri hau biziberritu nahi dugula esateko. Joan den urteko otsailean izurrite ezezagun bat zabaldu zen gure artean, eta gure bizitza goitik behera nahastu zuen maila guztietan. Denok aldatu behar izan ditugu gure asmo, proiektu eta elkarren arteko harremanak, bakoitzarenak eta kolektiboak ez ezik baita erakunde mailakoak ere, birusaren aurkako borroka lehenesteko. Zaila izan da, zauri larriak utzi ditu Covid-19ak gure bizitza pertsonalean eta komunitarioan. Guztien artean larriena, zalantzarik gabe, birusaren ondorioz bizia galdu duten herritarren galera izan da. Hemendik, gaisotasun honen ondorioz utzi gaituzten milaka euskaldunak gogoratu nahi ditugu.

Orduan bezala, bizi dugun egoera honetan ere, desafio berriei ekin beharrez aurkitzen gara, eta argi aldarrikatu nahi dugu, etorkizuneko gizarte erronkoei erantzun baikor bat eman ahal izateko, euskal herritarren ahotsak bere lekua behar duela, hitzaren eta erabakiaren jabe behar dugula izan.

Estrategikoki zuzenak diren erabakiak hartzen ez baditugu, gizarte-desberdintasunak, era guztietako arrakalak eta noraez politikoaren arriskua areagotu egingo dira osasun, ekonomia eta gizarte krisiaren eraginez.

Oso garrantzitsua da une hau hartu behar ditugun erabakietan asmatzeko. Erantzunkidetasun politiko eta sozialaren garaia da. Gure herria eta bere jendea aurrera ateratzeko ordua, garapen ekonomikoa, gizarte justizia eta subiranotasun politikoa oinarritzat hartuta.

Orain, mundu zabalaren aurrean, gure herria, Euskal Herria, zutik eta bizirik dagoela aldarrikatu nahi dugu. Bere eskubideen jabe den herria dela gurea. Ozen adierazten dugu herri irekia eta aurreratua garela eta egungo munduak ekarri dizkigun mehatxuei aurre egiteko prest gaudela. Entzun nahi digun orori azaltzen diogu zer nolako gaitasuna duen Euskal Herriak aurrez-aurre jartzen zaizkion erronka zailenak gailentzeko. Eta, aldarri hutsetatik haratago, herri modura antolatzeko gure asmoa berresten dugu, gutako bakoitzaren gaitasun indibiduala gaitasun kolektibora batuz, herritar guztiei bizi-proiektu duin eta kalitatezkoa bermatzeko beharrezkoak diren tresnak eskuratuz. Orain, munduari esaten diogu herri honek, Euskal Herriak, bizirik jarraitzen duela eta bizirik jarraituko duela, hori baita gure herriaren gehiengo handi baten nahia.

Orain 45 urte Bergarara deitu gintuztenek igarri zioten herriak zer sentitzen eta zer behar zuen, eta hala, foruak indargabetzeak esan nahi zuen askatasun-deuseztapena oroitzeaz gainera, urratu beharreko bidea zein zen erakutsi zuten konpromiso politikoari eta sozialari helduz.

Jose Luis Elkoro, Imanol Murua, Jose Antonio Altuna, Iñaki Aristizabal, Prudentxio Larrañaga, Jose Mari Kortabarria, Juan Inazio Uria, Jabier Errazti, Luis Arkauz, Pablo Gorostiaga, Patxi Basauri, Inazio Iruin eta beste hainbat izan ziren Udalei eta euskal herritarrei dei egiteko erantzukizuna hartu zutenak, oroitzapen-egun bat ospatzetik ekiteko konpromisora igarotzeko eta mezu bat lau haizetara zabaltzeko: Euskal Herria bazela, izateko eskubidea zuela eta, bidegabekeria eta eramanezinetatik libre, gainerako Herriekin harremanean etorkizuneko bere helmuga non egongo den erabakitzeko eskubidea zeukala.

Adierazpen hura indarrean dago eta gaur, 45 urteren buruan, guri dagokigu aurrera jotzea gure Herriaren askatasunerantz.

Gonbidatuen zerrenda:

EH Bilduko alkateak:

1. Ima Garrastatxu (Durango)
2. Maite Ibarra (Arrigorriaga)
3. Iñigo Hernando (Galdakao)
4. Idoia Buruaga (Elorrio)
5. Illart Gumuzio (Igorre)
6. Jabi Asurmendi (Arakaldo)
7. Iñigo Gaztelu (Larrabetzu)
8. Ladis Satrustegi- Lesaka
9. Aitor Elexpuru -Bera
10. Koldo Leoz- Lizarra
11. Oihan Mendo- Gares
12. Gilen Garcia- Deba
13. Jose Ignacio Palenzuela- Mutriku
14. Izaro Elorza- Oñati
15. Iraitz Lazkano- Elgeta
16. Berñardo Kortabarria - Antzuola
17. Adur Ezenarro- Ordizia
18. Martin Aramendi - Ataun
19. Izarra Urdalleta- Segura
20. Amaia Junquera- Zerain
21. Anuska Esnal- Orio
22. Ma Aranzazu Irazusta- Alegi
23. Xabier Urdangarin- Astigarraga
24. Xabier Lertxundi- Hernani
25. TXELO AUZMENDI- Asparrena
26. Kepa Urteaga-Arrasate
27. Ion Albizu-Aretxabaleta

EAJko alkateak:

28. ARRASATE: María Ubarretxena
29. ARETXABALETA: Unai Elkoro
30. ESKORIATZA: Joserra Zubizarreta
31. DONOSTIA: Eneko Goia
32. ZARAUTZ: Xabier Txurruka
33. TOLOSA: Olatz Peon
34. BEASAIN: Leire Artola
35. LEGAZPI: Koldobike Olaetxea
36. HONDARRIBIA: Txomin Sagarzazu
37. URRETXU: Jon Luqui
38. URNIETA: Jorge Segurado
39. LAZKAO: Kepa Zubizarreta
40. SORALUZE: Iker Aldazabal
41. OÑATI: Ainhoa Galdos
42. ANTZUOLA: Baxili Ormazabal
43. AMURRIO: Txema Molinuevo
44. ZIGOITIA :Javier Gorbeña

45. URRUÑA: Jean Telletchea
46. MARKINA: Luis Egurrola
47. SOPUERTA: Unai Anton
48. LEIOA: Ivan Rodriguez
49. ALTSASU: Javi Oyo

Bergarako zinegotziak:

50. Angel Murgiondo
51. Maite Agirre
52. Ekaitz Aranberri
53. Kristina Markina
54. Nagore Iñurrategi
55. Ainhoa Lete
56. Aitor Aranzabal
57. Gorka Artola

Alkate ohiak:

58. Victoriano Gallastegi
59. Agurne Barruso
60. Jesus Elortza
61. Jaione Isazelaia
62. Elena Let

1976ko gonbidatuak:

63. Jose Antonio Altuna "Txatillo"-Arrasate
64. Luis Arkauz-Oñati
65. Jose Mari Kortabarria-Antzuola
66. Javier Errasti-
67. Patxi Basauri-Elgeta
68. Jose Luis Elkoro-Bergara